4. Epez kanpoan dauden kontratu bakoitza ahalik eta azkarren esleitzeko konpromisoa hartzea, gure agendan lehentasuna emanaz.
2. Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Zumaian, 2017ko maiatzaren 15ean.

Oier Korta Esnal

Zumaia Alkatea.

Alkateak gaiaren berri eman du.

-----

**2.2.- 2016KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOEN BERRI EMATEA: UDALA, KIROL PATRONATUA ETA MUSIKA PATRONATUA**

**286/2017 ALKATE DEKRETUA**

Udal honen 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

**EBATZI DUT**

**Lehenen.** Udal honen 2016(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

**DIRUZAINZA GERAKINA**

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n:		5.458.277,95
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		1.620.791,90
Aurrekontuko zordunak :	1.513.768,37	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	107.023,53	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	



## Zumaia Udala

2017IAKU0003-006-004

3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		1.497.878,95
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	1.225.552,59	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	272.326,36	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		5.581.190,90
5.- Saldo kobragaitzak:		965.116,27
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.-Kontingentzietarako hornidurak (FOFIM-a)		327.600,67
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		4.288.473,96

### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	1.389.595,81
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-108.400,50
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	196.539,35
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	1.477.734,66

### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	1.453.080,39
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	1.072.601,95
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	2.525.682,34

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udaltzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Zumaian, 2017ko martxoaren 31a .  
Alkatea



MARIKRUZ ALVAREZek (EAJ-PNV) gaiaren berri eman du:  
Udaleko aurrekontuari dagokionez behin betiko aurrekontua 14.327.433,00 eurotako izan da. Gauzatze maila %83,85 portzentaian. Diruzaintza gerakina guztira 5.581.190,90 baina hor doikuntza batzuek egin behar dira, saldo kobragaitzak eta kontingentzietarako hornidurak kendu beharra dago orduan gastu orokorretarako diruzaintza gerakina 4.288.473,96 eurotako izango da. Aurrekontu emaitza: 1.477.734,66 eurokoa.

#### 277/2017 ALKATE DEKRETUA

Kirol Patronatuaren 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

#### EBATZI DUT

**Lehena.-** Udal honen 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

##### DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n:		24.917,45
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		218.267,91
Aurrekontuko zordunak :	218.207,91	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	60,00	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		237.603,64
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	229.079,28	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	8.524,36	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		5.581,72
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		5.581,72

##### AURREKONTUKO EMAITZA

--





## Zumaia Udala

2017IAKU0003-006-004

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-36.034,26
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	0,00
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	-36.034,26

### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	49.702,89
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	32.940,61
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	82.643,50

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Zumaian, 2016ko martxoaren 31 a.  
Alkatea  
Oier Korta Esnal

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV) (EAJ-PNV):  
Kirol Patronatuari dagokionez behin betiko aurrekontua 1.235.210,00  
Gauzatze portzentaia %93,32koa  
Diruzaintza gerakina guztira 5.581,72koa  
Eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina zenbateko berdina 5.481,72koa

### 2017/273 ALKATE DEKRETUA

Musika Patronatuaren 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### EBATZI DUT

**Lehena.-** Udal honen 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n: 0,00



## Zumaia Udala

2017IAKU0003-006-004

2.- Kobratu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		0,00
Aurrekontuko zordunak :	0,00	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	0,00	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		0,00
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	0,00	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		0,00
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		0,00

### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-13.497,30
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	0,00
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	-13.497,30

### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	0,00

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Zumaian, 2016ko martxoaren 31an.

Alkatea  
Oier Korta Esnal



Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) Musika patronatuari dagokionez esan du, musika patronatua gaur egun desegin da dago hau da aurkeztuko den azken likidazioa eta aurkeztu beharra dago 2016ko hilabete batzuetan martxan jarraitzen zuelako; orduan Musika Patronatuari dagokionez behin betiko aurrekontua: 36.014,69 euro; Gauzatze maila %100an; Eta gerakinik eta ezer ere ez dago deseginda dago dagoeneko.

-----

## **2.3.- IRIZPENA:**

### **2.3.1.- 2017KO AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAREN ALDAKETAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**2017KO MAIATZAREN 18KO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA: AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAREN ALDAKETA ONARTZEARI BURUZKOA**

#### **AURREKARIAK**

2017ko maiatzaren 18ko ogasun batzordearen aurrekontua gauzatzeko udal arauaren sartu beharreko aldatzen proposamena aurkezten dugu: bertan, 6.artikulua aldatzen dugu gastuen baimena eta erabilera atalean, 11.artikulua diru-laguntzetan, eta 16.artikulua gehitzen dugu kontu-ikuskaritzari buruzkoa.

#### **2017KO AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAREN ALDAKETA**

Ondorioz, 2017ko maiatzaren 18an, honako aurrekontua gauzatzeko udal arauaren aldatzeko PROPOSAMENA onartzea, ondorengo botoekin

Aldeko botoak: 4 (2 EAJ/PNV), (2 EHBILDU).

Aurkako botoak : 0.

Abstentzioak: 1 (PSE).

Ondorioz, 2017ko aurrekontua gauzatzeko udal arauaren aldatzea Osoko Bilkurara eramatea proposatzen da.

Zumaian, 2017ko maiatzaren 18an  
Zumaia kontu-hartzaileak

Lioba Maiza Recondo

MARIKRUZ ALVAREZek (EAJ-PNV) adierazi du momentu honetan Zarauzko kontu-hartzailea daukagula, esperientzi handiko kontu-hartzailea eta aldatzea batzuk



**Zumaia Udala**

2017IAKU0003-006-004

proposatu dituela udal arauaren gainean, gehien bat kontrol gehiago emateko aurrekontua gauzatzeko orduan, eta proposatzen dituen aldaketak:

- 6. artikuluan aldatzen da gastuen baimena eta erabilera atalean
- 11. artikuluan diru laguntzetan eta
- 16. artikuluan gehitzen da kontu ikuskaritza buruzko gaia.

## **ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 13 (6 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** 2017KO AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAREN ALDAKETAK ONARTU DA

-----

### **3.- HIRIGINTZA.-**

#### **3.1.- IRIZPENAK:**

#### **3.1.1.- UROLA KOSTA UDAL ELKARTEKO ESTATUTUEN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**2017KO MAIATZAREN 22KO**

**HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, UROLA KOSTA UDAL ELKARTEKO ESTATUTUEN ALDAKETARI BURUZKOA.**

#### **AURREKARIAK**

1.- Ikusirik Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak, 2016ko abenduaren 15ean egindako ohiko bilkuran, Udal Elkartearen Estatutuen aldaketari hasierako onarpena eman zion. Estatutuen aldaketaren helburua da Estatutuek bere xedearen barruan aurreikustea, hondakinen gaikako bilketaz gain, etxeko hondakin guztien bilketa, errefusa barne.

Laburbilduta, Estatutuen 5. artikulua honela aldatuko litzateke, 22/2011 Legea kontuan hartuz:

#### **5. artikulua, indarrean**

*5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak*

*Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkarte osatzen duten udalerrien garapena eta udalerririk horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udalen eskumenekoak diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era eskusiboan nahiz osagarrian):*

*Prestakuntza eta enpleguko programak: prestakuntza eta laneratzeko.*

*Baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programak.*

*Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.*



## Zumaia Udala

2017IAKU0003-006-004

### **Hiri hondakinak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzuak eta Garbiguneen kudeaketa.**

Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.

Ingurumeneko informazio eta sentiiberatze kanpainak.

Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.

Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.

Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango,

artikulu honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeak Estatutuak

aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

### **5. artikulua, aldatuta**

5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak

Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkarte osatzen duten udalerrien garapena eta udalerririk horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era eskusiboan nahiz osagarrian):

Prestakuntza eta enpleguko programak: prestakuntza eta laneratzea.

Baztertuta gelditzeko ariskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzekeo programak.

Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.

### **Etxeetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak.**

Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.

Ingurumeneko informazio eta sentiiberatze kanpainak.

Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.

Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.

Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango,

artikulu honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeak Estatutuak

aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

### **2.-** Ikusirik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen Dituen apirilaren 10eko, 6/2007 FORU ARAUaren 11. artikulua estatutuak aldatzeko jarraibideak ezartzen dituela:

11. artikulua. Estatutuak aldatzea.

Mankomunitatearen estatutuak aldatzea ondoko prozeduraren arabera izango da:

a) Ekimena lehendakariari dagokio edo Batzar Nagusiko edo gobernu organo kolegiatuko heren bati, gutxienez.

b) Batzar Nagusiak eta gobernu organo kolegiatuak onartzea, bileran daudenen gehiengoak hartutako erabakiaren bidez.

c) Erabakia jendaurrean erakustea hilabeteko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta doakien udal etxeetako iragarki tauletan erakutsiz. Horren ondoren, estatutuen aldaketa Foru Aldundiaren iritzira makurtuko da epe berdinean, eta hori iragaten bada iritzirik eman gabe aldekotzat hartuko da.

d) Mankomunitateko udalen gehiengoak onartzea, mankomunitatea eratzeko eskatutako quorumekin onartutako udal batzarraren erabakiaren bidez.

e) Estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Ikusirik, bada, Urola Kostako Udal Elkarte osatzen duten udalen gehiengoek estatutuen aldaketa onartu beharko dutela.

Ikusirik, 7/1985 Legearen, Toki erakundearen araubidea arautzen duen oinarri Legearen, 22. eta 47.2 g) artikuluen arabera Osoko Bilurak legezko gehiengo osoarekin onartu beharko duela estatutuen aldaketa.

### **3-** Ikusirik Urola Kosta Udal Elkarte osatutako espedientearen edukia,

#### **IRIZPENA**

Ondorioz, 2017ko maiatzaren 22an, boto hauekin

Alde: Oier Kortza (EAJ)  
Jon Iraola (EAJ)  
Alex Oliden (EHBildu)  
Josu Arrieta (EHBildu)

Kontra: 0



**Zumaia Udala**

Abstentzioa: 0

2017IAKU0003-006-004

Hirigintzako Informazio Batzordeak ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen legezko gehiengo osoa beharko da):

- 1.- Zumaia Udalarri dagokionean, Urola Kostako Udal Elkartearen estatutuen aldaketa onartzea, estatutuen 5. artikulua aldaketarena, objektuarena, hain zuzen ere.
- 2.- Erabaki honen berri ematea Urola Kostako Udal Elkarteari.

Zumaia, 2017ko maiatzaren 22a  
Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoko  
Arduraduna

ALKATEAK gaia aurkeztu du esanez, datorren urteari begira urtarrilerako nahi da gaur egun Urola Kostan errefuxa frakzioa udalerriri bakoitzak bere gain hartu behar du eta asmoa da 2018ko urtarrilean bateratzea Udal kostako udal elkartearen, o sea, Mankomunitatean; eta hori aurrera eramateko lehendik eta behin Mankomunitatean onartu behar da estatutuen aldaketa bat egin da eta onartu egin behar da Mankomunitateara pasatzen direla eta gero bestetik ere bai udalerriri bakoitzak pleno bitartez onartu behar du Mankomunitateak onartu duena, eta aldaketa hori emateko estatutuen aldaketa egin behar da 5. artikuluari dagokionez eta orain arte hiri hondakinak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzuak eta garbigunearen kudeaketa baldin bada, aldaketak gaur hemen ekartzen den aldaketa eta bozkatzeko ekartzen den aldaketa 5. artikulua honetan aldaketa izango litzateke:

Etxeetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak beregain hartzea.

## ERABAKI ZATIA

**Votos a favor: 13 (6 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** UROLA KOSTA UDAL ELKARTEKO ESTATUTUEN  
ALDAKETA ONARTU DA

-----



**Zumaia Udal**

2017IAKU0003-006-004

### **3.1.2.- (IDAE) KANPOALDEKO UDAL-ARGITERIA BERRITZEKO LAGUNTZETARA ATXIKITZEKO ERABAKIA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

#### **2017KO MAIATZAREN 22KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, KANPOALDEKO UDAL-ARGITERIA BERRITZEKO LAGUNTZETARA ATXIKITZEKO ERABAKIARI BURUZKOA.**

##### **AURREKARIAK**

1.- Ikusirik Zumaia udalerriko argiterian inguruan energia-auditoria beharrezkotzat jotzen dela, eta ikerketa integrala egiteko aurrekontuak eskatu direla, eta Sektore Publikoko kontratuen Legearen 23., 111. eta 138. artikuluen arabera, 2016ko martxoaren 3an Zumaia udalerriko argiterian Iluminantzien neurketa egiteko zerbitzua EFICIEN RESEARCH, S.L.ri esleitu zitzaioa.

2.- Ikusirik 2016ko apirilaren 19ko Ogasun eta Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoko Batzordeetan IDAEn (Instituto para la Diversificación y el Ahorro de la Energía) laguntzen eta proposatutako jardueraren Memoria deskriptiboaren eta eskatu beharreko laguntzen berri eman zela.

3.- Ikusirik 2017ko apirilaren 5eko Ebazpena, IDAE institutuarena, 2017ko martxoaren 6an Administrazio Kontseiluak onartutako Ebazpena argitara dakarrena, kanpoaldeko udal-argiteria berritzeko laguntza-programak arautzeko oinarriak eta deialdia ezartzeko.

4.- Ikusirik kontu-hartzaileak txostena egin duela, Toki-entitatearen beraren eta haren mendeko erakundeen egonkortasunari lotutako helburua betetzeari buruzkoa, azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuaren arabera; horrek abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen du, Aurrekontuen Egonkortasunari dagokiona, toki-entitateetan aplikatzeko, batetik; eta egin beharreko jarduketak azaltzeko Memoria, bestetik.

##### **IRIZPENA**

Ondorioz, 2017ko maiatzaren 22an, boto hauekin

Alde: Oier Korta (EAJ)  
Jon Iraola (EAJ)  
Alex Oliden (EHBildu)  
Josu Arrieta (EHBildu)

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Hirigintzako Informazio Batzordeak ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Onartzea Zumaia Udalak parte hartzea kanpoaldeko udal-argiteria berritzeko IDAE erakundearen laguntza-programetan.

2.- Eskatutako laguntzaren mailegu itzulgarriaren eragiketaren ituna onartzea; zenbatekoa 504.219 €-koa da.

3.- Onartzea IDAE lehentasunezko hartzekoduntzat hartzea, aipatutako maileguaren eragiketa horregatik; ondorioz, amortizazioari dagozkion ordainketak, berandutze-interesak edota balizko zigorrak lehentasunezko lekua izango dute ordainketen zerrendan, pertsonal-gastuen ondoren, Zumaia Udalaren funtsak antolatzekeo planean maileguaren kontratua indarrean dagoen bitarte horretan.

4.-Egin beharreko jarduketak azaltzeko Memoria onartzea; agiri honen Eranskin gisa doa.



**Zumaia**ko Udala

2017IAKU0003-006-004

Zumaia, 2017ko maiatzaren 22a  
Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoko  
Arduraduna

ALKATEAK adierazi du iaz bezala Zumaia Udala aurkeztu zela IDAEko diru laguntzetara, horretarako proiektu bat idatzi zutela, EFICIENT RESEARCH enpresarekin, onartua izan zen proiektua, eficiencia energetikoaren inguruan aldaketa batzuek proposatzen dira proiektu horren barruan eta onartua izan arren diru laguntza, berriz, ez. Aurten berriz ere irten du diru partida berri bat eta 2017an berriz ere proiektu bera aurkeztu ahal izateko maileguetara plenotik pasa beharra dago, plenoak onartu beharra dauka izango da lehengo urtean egin zen proiektu bera, berriz ere aurkezteko eta besterik gabe bozkatzera pasako gara

## **ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 13 (6 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** (IDAE) KANPOALDEKO UDAL-ARGITERIA BERRITZEKO LAGUNTZETARA ATXIKITZEKO ERABAKIA ONARTU DA.

-----

**3.1.3.- ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAK BEHIN BETIKO ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

2017KO MAIATZAREN 22KO HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA UDALTZAINGOAREN BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.

### **AURREKARIAK**

1.- Ikusirik Ordenantza hau, Udalei trafiko eta zirkulazio gaietan legez ematen zaizkien eskumenen indarrez ematen da. Zumaia hiri-bideetako zirkulazioarekin eta horien erabilerarekin zerikusia duten alderdi batzuk





## Zumaia Udala

2017IAKU0003-006-004

arautzea du helburu, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasuna hobetzeko, eta aparkalekuen errotazio eta erabilera ona bermatzeko xedez.

Ordenantza honen xedea trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea da.

Horretarako, leku eta denbora mugak ezarriko dira zerbitzu partikular edo publikorako erabiltzen den 3.500 kg arteko edozein ibilgailu bide publikoko leku edo zonetan eta bertan jarritako aparkalekuetan aparkatzeko.

Helburua da oreka handiagoa lortzea herriko hainbat zonatan aparkatzeko eskaintzaren eta eskariaren artean. Helburu hori lortzeko, Udalak (bere kabuz edo zerbitzu hori emateko kontratatutako enpresen laguntzarekin) bete ditzakeen mugatze, kontrol eta inbentsio jarduerak garatu dira.

**2.-** Ikusirik 2016ko azaroaren 24an ohiko batzaraldian Udaleko Osoko Bilkurak legezko gehiengo osoarekin Zumaia Zerbitzu teknikoek idatzitako ZUMAIKO 07 HA-ARDANTZABIDEKO HIRI BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIARI behin betiko onespina eman zitzaioela, eta dokumentu honetan zona 1:Ardantzabide guneko aparkalekuen erabilera arautzen zela.

**3.-** Ikusirik 2016-09-5 eta 2017-01-19 bitartean parte-hartze prozesuaren barne herritarrekin zortzi bilerak izan direla eta bilerak hauek ZUMAIKO 07 HA-ARDANTZABIDEKO HIRI BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIA eta ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA idatzeko oinarri izan direla.

**4.-** Ikusirik 2016-12-19, 2017-02-06, 2017-02-20, 2017-02-28 eta 2017-03-06ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzordeetan ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA idatzeko irizpideen berri eman zela.

**5.-** Ikusirik Udalbatzak, 2017ko martxoaren 16ko ezohiko bileran, hasierako onespina eman dio Zumaia udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua eta gune jakin batzuen zirkulazioaren eta erabilerearen zenbait alderdi arautzeko ordenantza eta dokumentua jendaurrean erakutsi dela 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Udalaren Idazkaritzan aztertu ahal izango da.

**6.-** Ikusiri dokumentua agerraldi publikoan egon den epean zortzi alegazio aurkeztu direla.

**7.-** Ikusiri Udal zerbitzu teknikoek alegazioei erantzunez egindako txosten teknikoa.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko maiatzaren 22ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Oier Korta (EAJ)

Jon Iraola (EAJ)

Alex Oliden (EHBildu)

Josu Arrieta (EHBildu)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

**LEHENA.-** Juan José Ruiz de Azua Alcorta eta M<sup>o</sup> José Sudupe albizurik (1. Alegazioa), Agustin Ezenarro Zumeta (2. Alegazioa), Maria Nieves Trueba Gutierrez (3. Alegazioa), Juan Manuel Arana Trecu (4. Alegazioa), Maite Dominguez Berastegi-k (5. Alegazioa) aurkeztutako alegazioak ONARTZEA eta Maria Jose Garbayo-k (6. Alegazioa ) eta Araika Arrona Gonzalezek (7. alegazioa) aurkeztutako alegazioak EZ ONARTZEA



**Zumaia Udala**

2017IAKU0003-006-004

**BIGARRENGOA:** ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA-ri behin betiko onspena ematea

**BIGARRENGOA:** Ordenantzaren behin betiko onspenaren iragarkia eta Dokumentuaren textu bateratua GAOn argitaratzea.

Zumaia, 2017ko maiatzaren 22a.

HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA UDALTZAINGOAREN BATZORDEBURUA

Alkateak gaia aurkeztu du eta, besterik gabe, bozkatzeari ekin diote

### **ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 13 (6 EAJ-PNV;6 EH BILDU; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 0**

### **ERABAKIA:**

**LEHENA.-** Juan José Ruiz de Azua Alcorta eta M<sup>a</sup> José Sudupe albizurik (1. Alegazioa), Agustin Ezenarro Zumeta (2. Alegazioa), Maria Nieves Trueba Gutierrez (3. Alegazioa), Juan Manuel Arana Trecu (4. Alegazioa), Maite Dominguez Berastegi-k (5. Alegazioa) aurkeztutako alegazioak ONARTZEA eta Maria Jose Garbayo-k (6. Alegazioa ) eta Araika Arrona Gonzalezek (7.alegazioa) aurkeztutako alegazioak EZ ONARTZEA

**BIGARRENGOA:** ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA-ri behin betiko onspena ematea

**BIGARRENGOA:** Ordenantzaren behin betiko onspenaren iragarkia eta Dokumentuaren textu bateratua GAOn argitaratzea.

-----

#### **4.- PERTSONALA.-**

##### **4.1.- IRIZPENA.-**



**Zumaia Udala**

2017IAKU0003-006-004

**ZUMAIKO UDALEKO 2017KO LAN-ESKAINZA PUBLIKORA ATERA DIREN 3 UDALTZAIN PLAZA JABETZAN BETETZEKO, POLIZIA ETA LARRIALDIETARAKO EUSKAL AKADEMIKAK ANTOLATUKO DUEN DEIALDI BATERATUAN PARTE HARTZEKO KUDEAKETA MATERIALAREN GOMENDIOARI BURUZKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**2017KO MAIATZAREN 22KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA.**

**GAIA: ZUMAIKO UDALEKO 2017KO LAN-ESKAINZA PUBLIKORA ATERA DIREN 3 UDALTZAIN PLAZA JABETZAN BETETZEKO, POLIZIA ETA LARRIALDIETARAKO EUSKAL AKADEMIKAK ANTOLATUKO DUEN DEIALDI BATERATUAN PARTE HARTZEKO KUDEAKETA MATERIALAREN GOMENDIOARI BURUZKO HITZARMENA ONARTZEA.**

**AURREKARIAK**

2017ko maiatzaren 18an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da Zumaia Udaleko 2017rako lan-eskaintza publikoa, 2017ko maiatzaren 11ko 311/2017 Alkate Dekretuz onartu dena.

Bertan, indarrean dagoen legediak ahalbidetzen duen neurrian, udaltzaingoan, momentuan hutsik dauden 6 udaltzain plazetatik, 3 eskaini dira.

Hutsik dauden 6 plazetatik, lan-eskaintzan jaso diren 3 plazak zehazteko jarraitu den irizpidea izan da plazak hutsik geratu diren data kontuan izanik, antzinatearen arabera, handienetik txikienera.

2017ko maiatzaren 4ko pertsonal batzordean eta baita data berdinean langile ordezkariekin egindako bileran, azaldu zen Polizia eta Larraldietarako Euskal Akademiak hutsik dauden udaltzain plazak jabetzan betetzeko deialdi bateratu bat antolatu behar duela eta udal gobernuak bertan parte hartzeko aztertzeko ari zela, bestelako zehaztapenik gabe.

Udal gobernuak gaia aztertu ondoren, deialdi bateratuan parte hartzeko erabakia hartu du eta modu horretan jakinarazi zaie lehenik eta behin lan-eskaintzan jaso diren 3 plaza betetzen dituzten bitarteko funtzionarioei eta ondoren, udaleko langile ordezkariari.

Hasierako jakinarazpenaz gain, langile ordezkariekin gaia negoziatzeko bilera egin da 2017ko maiatzaren 16an.

2017ko maiatzaren 18ko pertsonal batzordean, deialdi bateratuan parte hartzeko Zumaia Udalaren eta Polizia eta Larraldietarako Euskal Akademiaren arteko Kudeaketa Materialaren Gomendioari buruzko Hitzarmena aurkeztu da, deialdi bateratu honetan parte hartzeko aurrez udal Plenoak onartu behar duena, hala badagokio.

Hitzarmenean, beste zehaztapenekin batera, ondoren azaltzen diren abantailak jasotzen dira:

Alde batetik, bi Administrazio jarduleak konturatzen direla toki-mailan sortzen den zailtasuna halako Udaltzaingoaren Oinarizko Eskalako agente Kategorian sartzeko hautaketa prozesuak egiteko, bere kudeaketa materialaren konplexutasunetik eta deia egiten duen erakundeari sortutako gastu ekonomikoetatik eratorria. Hori gutxi balitz, toki-erakunde gehienetan ez dute langile espezializaturik halako prozesuak aurrera eramateko.

Bestetik, Toki-erakunde desberdinetako azpieskaletan sartzeko hautaketa prozesuen deialdi eta lan publikorako egungo eskaintza ugariak baliabideen sakabanatzea eta gastuen biderketa sortzen dituzte.

Horrekin batera, bi aldeak konturatzen dira hautaketa prozesu bateratu bat egiteko jarduteko esparru komuna ezartzearen abantailez eta EAEko toki-erakundeei aplikagarri izan beharko lukeela, borondatez eta beren toki-autonomiaren jardunean kide egiten direla.

Abantailen artean honakoak daude:



## Zumaia Udalak

2017IAKU0003-006-004

- Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalarako hautaketa profil bera aplikatzea.
- Aipatutako hautaketa prozesuen ezaugarriak bateratzea.
- Aldi berean zenbait hautaketa prozesutan parte hartzen duten izangaien ihesetik eratorritako gainerako gastuen arazoak ebaztea.
- Lehen adierazitakoagatik, hautaketa prozesuetan zehar lanpostu hutsen sorrera saihestea.
- Prozesuak egiteagatik gastua gutxitzea.

### IRIZPENA

Ondorioz, **2017ko maiatzaren 22ko** Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Marikruz Alvarez (EAJ-PNV) (EAJ)  
Oier Korta (EAJ)  
Alex Oliden (EH-Bildu)  
Joseba Azpiazu (EH BILDU) (EH-Bildu)

**ALDEKO** irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

Eraginkortasun arazoak direla-eta, Zumaia Udalak Polizia eta Larraldietako Euskal Akademiari eskatzen diola Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko hautaketa prozesuak egiteko beharrezko diren izaera material, tekniko edo zerbitzuetako jarduerak gauzatzea.

Horretarako, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11 artikuluan eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 23.1.C eta F artikuluetan ezarritakoarekin bat etoriz, Zumaia Udalak eta Polizia eta Larraldietarako Euskal Akademiaren artean Kudeaketa Materialaren Gomendioari buruzko Hitzarmena sinatzea, ondoren eranstean dena.

Zumaian 2017ko maiatzaren 22an

Marikruz Alvarez (EAJ-PNV) Aparicio  
Pertsonal Batzordeko Lehendakariak

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Polizia eta larraldietarako euskal akademiak deialdi bateratu bat egin du herriak hutsik dauzkagun plazak betetzeko; Zumaia Udalak tasa de reposición delakoak aukera ematen digu 3 plaza ateratzeko eta erabaki zen baliabide horiek aprobetxatzea eta jabetzan betetzeko plaza horiek ateratzea, hiru dira, horretarako akademiak eskatzen du hitzarmen bat onartzea plenoak eta horixe ekarri dugu hona bozkatzera,

ALEX OLIDENek (EH BILDU) esan du irizpenari baiezkoa eman ziotela, eztabaidatu zela pare bat batzordeetan, beraiek hainbeste aldiz eskatu bezala eta ekimen honetan ez dutela inolako oztoporik izan nahi, baina abstenitu egingo direla esan du, izan ere zalantza batzuek dituztelako eta ikusi nahi dutelako urtebete honetan nolako ibilbidea egiten duen eta datorren urtera begira; abstenitu egingo dira ez daukatelako garbi beraiek bultzatu nahi zuketean udaltzaingo eredu lortzeko bidean aurrerapausoa izan daitekeen



**Zumaia Udala**

2017IAKU0003-006-004

edo ez. Baliteke izatea baina zalantzak dauzkate, orduan udaltzaingo gertuko herrikoia, herria ondo ezagutzen duena, prebentzioa, isuna eta zigorraren gainetik lehenesten duena, hori nahiko lukete; baliteke aurrera pauso bat izatea baina oraingoz nola gauzak ez dauzkaten garbi gure posizioa abstentzioarena izango da.

ALKATEAK esan du hemen gaur bozkatzen dena da plaza batzuek ateratzea da, isuna jarri edo ez izana; hitzarmena; orduan esan du ez dakiela, isunak zer ikusi beharra duten gaur hemen onartuko duten hitzarmen horrekin,

ALEX OLIDENek (EH BILDU) esan du deskribapen bat izan dela, beraien ereduaren deskribapen bat, hain zuzen ere; besterik gabe.

### **ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 7 (6 EAJ-PNV; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 6 (EH BILDU)**

**ERABAKIA:** ZUMAIKO UDALEKO 2017KO LAN-ESKAINITZA PUBLIKORA ATERA DIREN 3 UDALTZAIN PLAZA JABETZAN BETETZEKO, POLIZIA ETA LARRIALDIETARAKO EUSKAL AKADEMIAK ANTOLATUKO DUEN DEIALDI BATERATUAN PARTE HARTZEKO KUDEAKETA MATERIALAREN GOMENDIOARI BURUZKO HITZARMENA ONARTU DA

-----

### **5.- PROPOSAMENAK:**

**5.1.- EH BILDU UDAL TALDEAREN IZENEAN AURKEZTURIKOA, ALTSASUKO GERTAERAK: ATXIKIMENDUA**

Proposamena eztabaidatzen den ala ez bozkatu dute:

### **ERABAKI ZATIA**



**Zumaia Udala**

2017IAKU0003-006-004

**Votos a favor: 13 (6 EAJ-PNV;6 EH BILDU; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** Proposamena eztabaidatzea eta bozkatzea onartu dute

-----

ALEX OLIDENek (EH BILDU) gaia azaldu du esanez Altsasuko udalak bereziki, Altsasuko alkateak atxikimendu eskaera bat egin zuen duela zenbat hilabete, alkateei eta pleneoi eta iruditu zaie atxikimendu hau egitea udalbatza honi badagokiola eta gustatuko litzaiekela egitea eta besterik gabe testua irakurri du:

#### **“ALTSASUKO GERTAERAK: ATXIKIMENDUA**

Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren harira zenbait gazte terrorismo delituagatik inputatuak izan ziren; gure ustez prozesu horren izapideak Iruñan egin beharko lirateke, izan ere epaitzeko eskumena tokian tokiko epaitegiei baitagokie eta ez Entzutegi Nazionalari.

Hori hala izan beharko litzatekeela adierazi dute zenbait erakundek, nabarmenki Nafarroako Legebiltzarrak, baita jurista eta Unibertsitate irakasle ugari ere.

Horren karira, ZUMAIako Udalak bere elkartasuna eskaini nahi dio Nafarroako Legebiltzarrak, Altsasuko Udalak eta Altsasuren aldeko Plataformak eskaera hori eginez luzatu duten deia.

Elkartasun testu hau behean aipatzen diren bi helbide elektronikoetara bidalitzea eskatzen da.”

#### **ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 12 (6 EAJ-PNV;6 EH BILDU)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 1 (ES-SV)**



**Zumaia**ko Udala

2017IAKU0003-006-004

**ERABAKIA:** EH BILDU UDAL TALDEAREN IZENEAN AURKEZTURIKO PROPOSAMENA, ALTSASUKO GERTAERAK: ATXIKIMENDUA, ONARTU DA.

-----

## **5.2.- EAJ-PNVREN UDAL TALDEAREN IZENEAN AURKEZTURIKOA, HERRIAN EGINDAKO PINTAKETEN INGURUKOA**

### **ERABAKI ZATIA**

**Votos a favor: 13 (6 EAJ-PNV;6 EH BILDU; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** Proposamena eztabaidatzea eta bozkatzea onartu dute

-----

ALKATEAK esan du gai honen inguruan, udal gobernuak ohar bat baino gehiago atera duela komunikabideen bitartez, herrian izan diren pintaden inguruan, eta mozio honek ofizialtasun bat emateko ekarri dutela; eta nolabait helarazi herritarrei gure desadostasuna jarrera hauen aurrean. Ondoren proposamena irakaurri du:

#### **" ZUMAIKOA EAJ-PNVREN UDAL GOBERNUAK HERRIAN EGINDAKO PINTAKETEN INGURUAN AURKEZTUTAKO MOZIOA**

Azken hilabeteotan pintada ugari azaldu dira herriko leku ezberdinetan, eremu publiko zein pribatuetan. Gainera, horietako askok esaldi erasotzaileak jaso dituzte, sarritan, alkatea irainduz. Edonoren etxea erasotzea gaitzesgarria den bezala zumaia guztionak diren kale, eraikin eta paretak erasotzea ere gaitzesgarria da. Eta are gehiago zuzenean Zumaia herritarren baten izen abizenak aipatzen badituzte, edozein delarik haren kargu edo lana, mina egiteko intentzioa soilik helburu. Tamalez, gertakari horiek guztiak ez dira kontrolrik gabeko ekintzak eta ondorioz, inork ezin du bere erantzukizuna saihestu.

Garai berrietan bizi garela diogu, eta benetan bidean aurrera egin nahi dugula sinetsi nahi dugu. Horregatik, Zumaian, errespetuaren aldeko urratsak eman nahi baditugu atzean utzi behar ditugu presioan edo probokazioan oinarritutako metodo horiek.

Horrelako ekintzek, euskal gizartearen egunez-eguneko bizikidetzaren aldeko lana oztopatu baino ez dute egiten. Demokratikoki aukeratutako erakundeak eta hauek hartutako erabakiak errespetatzea, oinarritzkoa da bizikidetzaren eraikuntzan.

Hau guztiagatik, udalbatza honek:

1. Zumaia Udalak, azken hilabeteotan Zumaia eremu publiko zein pribatuetan egindako pintadak erabat gaitzesten ditu.
2. Zumaia Udalak, herritar guztiei eskatzen die, beren aldarrikapenak bide demokratikoetatik egitea eta herritarrek aukeratutako erakundearen erabakiak errespetatzea.
3. Zumaia Udalak bizikidetzaren normalizatu bat lortzeko bidean, jarrera erasokorrak baztertu eta jarrera eraikitzaile baten aldeko apustua egiten du."

Zumaian, 2017ko maiatzaren 23an



ALKATEAK jarraitu du esaten aurreko mozioan bezala, babestu den bezala iruditzen zaiela iraganeko jarrerak direla, kasu honetan ere gure herrian gertakari hauek pintaketan ekintza hauek baita ere gaitzesgarriak direla eta iraganeko jarduerak; eta udal gobernuak gaitzetsi egiten dituela horrelako jarrerak.

ALEX OLIDENek (EH BILDU) adierazi du zoritxarrez, aurreko mozioan iraganeko jarrerarik ez zen aipatzen oso gaurko jarrerak direlako eta hori da eskatzen dena atxikimendua, hain zuzen ere. Ondoren testua irakurri du beraien posizioa zehaztuz:

“ Ez dugu mozio hau babestuko, gure ustez gauzak nahita nahasten dituelako, titularra lortu eta udalaren beste gabezia edo arazo batzuk estaltzeko.

Hasteko, pintada jakin batzuen argazkiak atxikitzen dira, eta beste askorenak ez, erribera kaletik pasatzea besterik ez dago bestelako edukia duten pintada ezberdinak daudela ikusteko.

Hori horrela, pintada denak zaku berean sartzen dira, bai giza eskubideen urraketak salatzen dituztenak zein irain pertsonalak dituztenak.

Gu beti egongo gara, eta horretan ados gaude mozioarekin, irain eta eraso pertsonal zein kolektiboen aurka. Guk geuk horrelakoak jasan ditugu, hauteskunde kanpainatik bertatik hasita, eta ez dugu horrelako arrabotsik atera.

Gure ustez irainak, pintadak, garai berriak...dena nahita nahasten da, atzetik konpondu ezinean zaudeten arazo bat estaltzeko: udal hau Euskal Herrian famatu egiten ari da, dagoeneko 14 hilabetez oraindik aurkeztu ere egin ez den ordenantza bat aplikatzen, eta neurri hori alde guztien arteko parte hartzea eta elkarriketarekin jorratu beharrean, herrian polemika pizten.

Beraz, EH BILDUREN bozka ezezkoa izango dela argitu du.

ALKATEAK esan du iruditzen zaiola nahasten duena EH Bildu dela; udal gobernuak argi eta garbi identifikatu dituela pintadak eta horregatik bidali dituztela deialdiarekin batera, mozioarekin batera eta nahaste hori EH Bilduk egin duela orain, momentu honetan hemen, nahasten dituelako beste pintada batzuek iraingarriak direnak, iraindu dutenak pertsonalki e.a... ; eta uste du gaitzesgarriak direla denak, batzuek jasan dituztenak eta besteek jasan dituztenak eta inongo zerik gabe gaitzetsi behar direla denak eta ezin dena egin da batzuek bai eta besteak ez, eta gutxiago nahastu erribera kalean egiten den murala eta iraintzen dutenean zuzenean pertsona bati eta salagarriak dira edozein jarduera baina bide demokratikotik, eta ezin dena izan da, - Zumaian bakarrik ez dira ematen gauza hauek, ekintza hauek, horrelako mozio bat edo oso antzekoa Lezon aurkeztu da, Arrasaten ere bai, o sea, - ez da Zumaian dagokion gai bat, eta uste du beste garai batzuetan gaudela eta hori islatu behar dela alderdi guztietatik bai batzuek edo besteengandik, ez batzuek .... eta beste batzuek ez, alderdi batekoei aldatzeko eskatu eta beste batzuek lehengo bideetatik jarraitu.





## Zumaia Udala

2017IAKU0003-006-004

ALEX OLIDENek (EH BILDU) esan du gaizki ulertzerik ez egoteko garbi utzi nahi izan du eraso pertsonalak eta eraso kolektiboa suposatzen duten pintadak gaitzesten dituztela eta ez dituztela ontzat ematen inondik ere, eta hori ondo ulertzeko eta alde horretatik alkatearen kontra izan diren pintada horiek erabat gaitzesgarriak dira eta ez da hori bidea eta horren aurrean EH BILDUren posizioa garbi azaldu nahi du.

Zehaztu du esanez ez dela berdina irain pertsonala eta giza eskubideak urratzen dituen... giza eskubideen salaketa urratzen duen beste zera bat, hor ia... testu inguru bat behar da eta testu inguru horretan ez goaz justifikatzera baina bai ezin dela dena zaku berean sartu eta ezin dela besterik gabe pintada bat da eta hor bukatu arazo horretan... pintada horrek azaltzen duen arazoaren muina. Hor testu inguruan sartu egin behar da eta arazo horretan ere bai.

ALKATEAK esan du testu inguruan sartu daitezkeela eta edukietan bat egin, baina ez bide horietan. Eta edozein bide ez da onargarria eta hori ez da onargarria eta hor salatzen denarekin bat egiten dutela beraiek ere bai. Baina bat egitearekin ez du nahi esan edozer gauza, edozein bide zilegi denik, hori da hemen gaitzesten dutena eta gaur hona ekarri dutena gaitzesteko.

ALEX OLIDENek (EH BILDU) adierazi du ez zeukala aipatzeko asmo handirik baina benetan baita ere mozioan iruditzen zaiena da ematen duela hor nolabait EH BILDUK baduela nolabaiteko erantzukizunik, mozioa irakurri du "gertakari horiek guztiak ez dira kontrolik gabeko ekintzak eta ondorioz, inork ezin du bere erantzukizuna saihestu." Ez daki nola interpretatu daitekeen baina interpretazioetako bat da, beraiantzako iraingarria.

ALKATEAK uste du Arritxu Marañon (ES-SV) ez dela sentituko puntualizazio horretan izendatuta, zuek jakingo duzue zergatik sentitzen zareten. Berak uste du abstentzioa dela edo kontra bozkatzeara dela hor jartzen dituen esaldi horrekin bat egiten duzuenean, bitartean ez.

ARRITXU MARAÑONEK (ES-SV): Bai, es que yo estoy callada aquí sin intervenir para nada, entonces preferiría que no se utilice mi nombre, lo digo sinceramente, o sea, yo no sé si me siento aludida ó no me siento aludida, ó dejo de sentirme aludida, es una cuestión que estáis teniendo entre dos grupos, aquí hay un tercero que está totalmente callado en estos momentos y sinceramente preferiría que no se utilizase mi nombre para ver si me siento aludida ó no aludida, de verdad eh?

Bozkatzera pasa dira:

## ERABAKI ZATIA



**Votos a favor: 7 (6 EAJ-PNV; 1 ES-SV)**

**Votos en contra: 6 (EH BILDU)**

**Abstenciones: 0**

**ERABAKIA:** EAJ-PNVREN UDAL TALDEAREN IZENEAN AURKEZTURIKO PROPOSAMENA, HERRIAN EGINDAKO PINTAKETEN INGURUKOA ONARTU DA

-----

Jarraian, aurreko proposamenaren inguruan eztabaidatzen jarraitu dute.  
Transkripzioa:

KRISTINA VICENTE (EAJ-PNV): Iruditzen zait pixkat fuertea gutxienez abstentzioa izango zen interesantea ez? kontra bozkatzea fuertea iruditzen zaidala eta pixkat denok gure aldetik jarri behar dugula eta ez horren tikismikisak izan ezta? Eta ez zait iruditzen horrelako testu ezin dela apoiatu edoooo iruditzen zait nahiko ondo zegoela eta ez dut ikusten, o sea, flipatzen ari naiz nola kontrako botoa ematen diozuen?  
O sea, denok ari gara pixkat gure aldetik ipintzen ez?  
Eta bai garaiz kanpo gaudela ia!

ALKATEA: Alexek eskatzen du hitza,

ALEX OLIDEN (EH BILDU): Lehengoko puntua pasata zegoen, eta bueno igual da Denok saiatzen ari garela jartzen, hori zalantzarik ez daukat eta bide honetan nik uste konfiantza giroa sortzen saiatu behar dugula nolabait nik uste lehen pauso batzuek emanda daude eta hor sakontzea tokatzen zaigu eta saiatzea denoi eta igual mesfidantza horiek oraindik badaude, egon dira, baina ez dakit, gure interpretazioa behintzat horrela da, hor akusazio bat dago, guk horrela interpretatzen dugu, hor akusazio bat dago eta ez dut onartzen Oierrek esatea akusazio hori horrela dela interpretatzea zer edo zergatik, guk egin ote dugun edo ez dakit zer, badakit zer, orduan goazen, behar bada testu hauek egiterakoan igual elkartu, bildu, bizikidetza atala pixkat landu udal honetan, oraindik asko falta zaiona lantzeko goazen aurrera pauso horiek ematera, guk prest gaude, baina giro lasaian eta giro konstruktiboan, eraikitzailean.  
Nik uste, orain momentu honetan aurrera pauso batzuek eman direla eta kondizioak ematen direla horretarako eta besterik gabe.

ALKATEA: Nik gai honen inguruan Kristinarekin bat egiten dut, egia esan, zuk esaten duzu bizikidetzan aurrera pausoak ematen ari garela, kontrako bozka idatzi honi bozkatzeak... hor zeuden pintada batzuek zuzenean alkateari iraintzen ziotenak eta zuek kontra bozkatzen duzue, kontra bozkatzen duzue, gure idatziaren kontra bozkatzen duzue,  
Bai,

Nereak eskatzen du hitza,

NEREA EIZAGIRRE (EH BILDU): Nahi duena esan bueno... Alexek esan du igual irainduago nik adibidez, esaldi ikusterakoan ez naiz batere sentitu esan nahi dut gurena Bildurengana zetorrekiko, gu Bildu ordezkari bezala, baina pixkat klarifikatzeko esan nahi dut gure kontrakoa eta



## Zumaia Udala

2017IAKU0003-006-004

horrela ez! Eskatzen bada zergatik edo asaldatzen bagara horren inguruan, o sea, esan dugun bezala izango balitzake testu bat sinplea eskatzen den bezala alkateen edo beste ordezkarien edozeinen kontrako edo beste Zumaia beste pertsona kargu hartzen duen edozeinen kontrako irainen erabat kontra gaude eta testua horren bila joango balitzake sinpleki hori azalduz guk erabat babestuko genuke, esaten dut ere bai nahi baldin bada horrelako testu bat egin aurrera egiteko.

Pixka bat guk testua irakurtzerakoan ere hartu genuen lehenengoa zen hor sortzen den diskurtso bat bezala ez? eta batez ere Alexek irakurri duen esaldi horretan ematen du, ez dakit, presioak eta o sea, Zumaian... hori irakurtzerakoan ematen zuen Zumaian ez dakit nolako presioa egongo balitzake edo jendeak... orduan guk horregatik testuak, berak zeukan erretorika horrekin, esan nahi dut gure baiezkora ere bai bilatuko balitzake hori gurekin ere bilduta aurretik edo hurrengo plenorako nahi baldin bada gure zera... hori esan nahi dut

Gu giza eskubidearen alde erabat eta horren zera da... bakarrik erretorika horrekin ez gaude ados, gure ustez Zumaian ez gara bizi gaur egun toki baten horrela presioak eta horrelako kontutan, orduan, horregatik esan nahi dut gure bozka pixkat kontra horregatik

ALKATEA: Kristinak eskatzen du hitza,

KRISTINA VICENTE (EH BILDU): Ez, iruditzen zaidala pixkat bat pentsatu egin behar dela, edo zuk igual tentsioa ere ez duzula igartzen, baina igual besteok bai igartzen dugula, orduan zuei irudituko zaizue Zumaian ez dagoela ez dakit nolako girorik baina beste batzuek igual bizitzen dugu, orduan pixkat orokorrean ulertu behar dela. Ez?

ALKATEA: Arritxuk du hitza

ARRITXU IRIBAR (EH BILDU): Nik Alexek eta Nereak esandakoarekin bat nator eta niri flipantea iruditzen zait zure erantzunetatik tikismikis jarri dituzuen argazkiak. Testua, ez dago testua bakarrik, argazki batzuek daude, eta argazki horiek ez dira edozein argazki eta ez dira edozein... ez dira al tun-tun hartutakoak ze... bestela badaude beste batzuek edozein kaletan eta horiek ez dira sartu eta giza eskubideak urratsen direnak (eman buelta bat) hasi behar dugu esaten Cabacasenak adibidez hor daude, Cabacasen kontrakoak, kale erriberan edonon daude, edonon daude, Bai, bi oraintxen datozkit burura, Erribera kalean eta behin eta berriz bai berresten dut lehen esandakoa, eraso pertsonalak ez ditugu onartzen eta ez ditugu... eta horiek bai bat egiten dugu mozio horretan, baina testu hori ez dago zuzenduta horretara bakarrik, testua dagoen bezala ez dago horretara zuzenduta eta hor beste zerbait bilatzen da eta joko horretan ez gara sartuko.

ALKATEA: Bale!

Arritxu zure hitzak entzun ondoren, Cabacasenak ere hor daude, orduan EH Bilduren proposamena zein da? edozein gai salagarri daudenak libreki hemen gauden denok kalea irtetea daukagu eta nahi dugun tokian pintaketak egin zuek hori defendatzen duzue?

Nik Cabacasenak ere salatu egiten dut eh? denak, denak, eta Cabacasen aldarrikatzen denarekin igual bat egiten dut baina berriz ere berdina esaten dut bide guztiak ez dira zilegi eta zuk aldarrikapen batekin bat egiten duzu baina bizi gara azkenean komunitate batean eta ditugu arauak,

Zuri gustatuko litzaizuke ni zure etxera joango banintzateke eta nik beste aldarrikapen bat margotzen badut zure etxean, adibidez.

Zuk zer erantzun emango zenion hona udaletxera zetorren emakume bat bere etxe azpian pintada batzuek egin zirelako eta mesedez borratzeko horiek, emakume horri zer esango zenioke? Barkatu es que aldarrikapen batzuek dira, orain dela 15 egun etorri zen emakume bat hona, bizi gara komunitate batean eta errespetatu egin behar ditugu bakoitzaren etxeak, zuk zeurea errespetatzen duzun bezala, beste denok, gainontzekoak errespetatu egin behar dugu eta pintadekin igual ados gaude, hemen gauden 13 pertsonak baina hori bidea da?

EH Bilduk hori babesten du?

Bat egiten du?

Bost argazki bidali dira, gehiago daudela? Bai



## Zumaia Udala

2017IAKU0003-006-004

Zer nahi duzu denak bidaltzea?

Bidaliko dizuegu. Horrekin zer nahi duzu esan horiekin bat egiten duzuela?

Niretzako denak dira, bost horiek ez. Denak dira salagarriak, maila ezberdinetan baina azkenean espazio publikoa errespetatu egin behar dugu, denok, denok eta munduan injustizi asko daudela, Bai baina horregatik ez dugu hartzten bakoitzak bere esku eta aktuatzen dugun nahieran, libreki, aldarrikapen bat egiteko, nik uste dut beste garai batean gaudela,

Zuk, ez dakit bideratzeko aukerarik daukazun baina ni ibiltzen naiz hortik. Eta Euskal Herriak kanpora irteten duzunean Euskal Herrian dauden, ez Zumaian, herri guztietan ematen den pintaketa kultura ez dago.

